

## BILBO

### 200 etxebizitza eregiko ditue Errekalde auzoko Elejabarrin

Udal Etxebizitzak alkarteak 200 etxebizitza barri egingo ditu Errekalde auzoan. Erabagia, martitzeneko batzarraren hartu eban alkartearen Administrazio Kontseiluan parte hartzen daberen ordezkari politikoei. Azken hamabi urteetan ez zan horrelakorik gertatzen Bilbon. Etxeak Elejabarrin egingo ditue, aterpea eta Errekalde artean dagozan etxe zaharrak bota ostean. Bertan sartuko ditue gaur egun bertan bizi diran 30 familiak.

2

## SANTURTZI

### ABRA kolektiboak energia proiektuen kutsadura mailek salatu dau

Abrako ingurunean eregiko dituen Bizkaia Badia Gasa bergasifikadoreak eta hiru zentral termikoei (Bizkaia Badia Elektrizitatea, Iberdrola Santurtzi III eta Petronorreko ziklo konbinatua) 10-12 miloi tona anhidrido karboniko (CO2) ekoiztuko ditue urtero, ABRA kolektiboen esanetan. Kontsumitzen danaren hiru aldiz gehiagoko kopurua ekoiztu gura dabe multinazionalak, kolektiboko kideek erabilten dituen datuen arabera.

2

## IGORRE

### Arratia errekea bideratuko dabe, uriol arriskuei aurre egiteko

Arratia ibaia bideratuko dabe Igorretik igaroten dan tartean. Uholde arriskua dala eta sortutako arazoa konponduko dabe bideratze honeguz. Ibaierak aisialdirako lekutzat erabilteko aukerea eskainiko dabe egitasmoa gauzatuko daben Jaurizaritzako Herrilan Sailak eta Igorreko Udalak. 34 milioi pezeta erabiliko ditue.

7

## ZULOKO-IBARRETA. Mobilizazioak

# Hezegunearen aldeko Ezpitsua taldeko beste sei kide atxilotu ditue

Ertzaintzak Ezpitsua taldeko sei kide atxilotu zituan, atzo goizean, Zuloko-Ibarrako hezegunea lehertzeko beharrak galerazoten ahalegindu ziralako. Martitzenean beste zortzi ekologista atxilotu zituen. Euren buruak kamioien aurrean ipintez ganera, Ezpitsua taldeko kideek udal agintarien kontrako salaketea ipini eban, atzo goizean, Barakaldoko epaitegian. Istiluak barikuan hasi ziran. Egun horretan jakin zan

## Padurea lehertzeko beharrak galerazoten egozan

martitzena ezkerdo dozenaka kamioi eta hainbat indusmakina hezegunean sartu zirala. Ekologisten ustetan, beharrak ez dira legezkoak, eta, horregaitatik, obrak bertan behar itzi behar dirala uste dabe. Horixe da epaileari, Espainiako Kostalde Sailari, eta arazo horretan eragina daukien erakunde guztiei eskatu deutesieena: Hezegunea eta bizi diran animalientzat beluegi izan baino lehenago, obrak geldituarazotea.

3

## BILBO. Udabarri giroa



XOUSE SIMAL

# Berandu baina... ailegau da!

Heltzen ez dan udaberria, pop talde ospetsu baten abestiak errealdadeaguz bat egin eban aurtengo udaberriaren etorrerearen atzerapena dala eta. Negua emoten eban udabarri honek azkenean agertu ditu benetako jantziak: bizidun gehien onuran; alergikoei ez dabe pentsakera berbera eukiko. Irudiko bikoteak

patxadaz hartu dau abisurik bako etorrerea. Egunkaria irakurten emon dau goiza, ederto baten: eguraldi aldaketaren ganeko al-bisteren bat irakurteko ez bada be. Berotegi efektu madarika-tuari eskatu beharko deutesiez egile eskubideak, kantuarren letra egileek. Artea errealdadearen aurretik joan da oraingoan.